

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: HARPA 2019ko MARTXOAREN 16a

2019ko MARTXOAREN 16an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **harpa** espezialitatean. Bertan Christine Icart, Julien Marcou eta Bérengère Sardin irakasleek eta Musikeneko harpa ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten harpa ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten harpa ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunean eskura duzun **izen-emate orriaren** bitartez

Zein da jardunaldien helburua?

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.

Lan-egitasmoa

9.30-10.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Harpa espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

10.30-11.00: Musikeneko ikasleei eskola irekiak Bérengère Sardin irakaslearen eskutik.

11.00-11.30: Christine Icart irakaslearekin harpa ikasleen eskola orokorra/hartuemana.

11.30-12.30: Musikeneko Harpa ikasleen entzunaldia.

14.00-18.00: Christine Icart espezialitate irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat.

18.00: Jardunaldiaren amaiera.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Hari instrumentuen Departamentu Buruarekin: Damián Martínez dmartinez@musikene.eus